Horrela, gaztetandik jorratu zituen euskal kulturaren arloa eta berea zuen hizkuntzaren mundua. Eta horrez gain, bere bizitzan zehar izan zuen kontserbadorismoa eta erlijiosotasuna ere aipatzekoak dira; izaera honek eragin handia izan zuen bere pentsamoldean eta baita bere euskal-nortasunean ere. Arreta eta gogo handiz aztertu eta ikertu zituen baita, herrian berezkoak genituen izaera eta historia, jaio eta hil zen bere herriko gizartearen izaera eta historia, hau da berea zuen mundua sakondu zuen, gero sentimendu eta abileziak eta berezko zituen talentu eta hitz-egiteko bertutearekin bere izena ezagutzera eraman zuten txarla eta, maisutasunez egindako idatzien bidez gipuzkoa mailan zabaldu zituen.

Hala ere bere garai onenetan ere, Tenek berezko zituen izaera eta kultura mailan erakutsi zuen ahalegin intelektuala (baita talentua ere), ez ziren nahiko izango bere izena ezagutarazteko. Izan ere, garai haietan, eta literatura eta kulturaren munduan norbait izateko, emakume izateak ez zuen tamalez asko laguntzen.



1988 urtea: autoresaren jaiotzaren ehun garren urteurrenaren omenez, Goaz antzerki taldeko kideak Gogo-Oñazeak antzezten.

Gure inguruan, ahalegin intelektuala eta sormen literarioa, salbuespen bakar batzuk alde batera utziz gero, gizonen arlo eskusiboa ziren... horrela, erraz imajina ditzakegu emakume debatar bikain honek bere burua eza-gutarazi zuen garai haietan ematen ziren berezitasunak zirela eta (XX. Mendeko 1920-1935 urteetan batez ere) izango zituen zailtasun eta trabak.

Eta garai eta giro gizarte-politiko ez egokiei buruz hitz egiten badugu, zer esan ondoren etorri ziren urte ilun eta triste guzti horiei buruz...

1936. urtean Gerrate Zibila hasi eta berehala (Tenek 48 urte zituen orduan), bere betiko bizitza izan zena, familia, gogoak eta abar guztiak atzean utzi eta presaka eta korrika Debatik ihesi joan beharrean ikusi zuen bere burua. Izan ere, bere partidu-kide eta euskaltzale anitz batzuen gisa, betidanik erakutsi zituen euskal abertzale eta errepublikar ideien alde egin izanak egoera oso larrian utzi zuten eta ondorioz erbestera jo beharrean ikusi zuen bere burua. Oso gogorra eta luzea gertatu zitzaion erbesteratzea.

Izan ere, beste abertzale eta errepublikar batzuek erbestean jasan behar izan zituzten ezbeharrak ezagutuz, Tenerentzako ere garai horiek oporrak izango ez zirela argi daukagu... Dena den eta xehetasunetan sartu gabe, bizipen hura luzea bezain garrantza izan zela esango dugu. Eguneroko bizitzaren arrazoiak bultzatu zuten orduan Tene, euskara eta kulturarekin erlasionatutako gaiak alde batera uzten, bizirik jarraitzen nahiko bai zuen...

Gerratea amaitu ondoren, eta ondoren Espainian jasan behar izan genuen errepresioa leuntzen joan zen arabera, erbestertuak pixkanaka Debara itzultzen hasi ziren... Hala ere, irabazle suertatu zen frankismoaren lehen urteetan batez ere, euskaraz jorrotutako idatzi eta abar guztiak, ardura politiko abertzaleak eta hauekin erlasionaturiko arlo guztiak ez zuten hedapenik izan. Izan ere, ildo horretan, garaituak izan zirenek pairatu behar izan zuten mendekotasunak, elebakartasun gogor baten inposaketak (betidanik bi hizkuntza hitz egin diren lurraldeetan neurri burugabea iruditzen zaigu orduan eta orain) eta agintean zegoen errejimena goraiatzea ez zen guztiak zekartzan ondorioek min handia egin zuten.

Berak betidanik maite izan zituen ideia eta pentsamenduen aurkako giro politiko haietan, Teneren ardurak, berba askea eta batez ere bere idazkera bikainak ez zuten inoiz lehen izan zuten alaitasuna izan.

Ez ziren gehiago aurrez izan zirena izan. Eta, emakume hura berezitu zuten talentu eta ezaugarriak, bere arduraren intelektuala, idazkerarako talentua eta sormenak, bertasunez eta edukiekin betetzen zekizkien elkarrizketa haiek ez zuten inoiz hedapen gehiagorik izan. Simpleki esateko, irtenbiderik gabe, bere talentua eta dohainak, bere barneko nebulosa batean hegan geratu ziren...

Gainera, garai politiko berri hartan ezer gutxi egin ahal zezakeen berriro kanpora ateratzekotan. Eta, eskerrak, aurretiaz Tenek eskaini ziguneko zati bat behintzat gure gogoetan geratu zela.



Debako jaietan egiten diren ohizko entzierro batetako irudia. Bere hainbat kontakizunetan Tenek askotan goratutako gure herriko berezitasunetako bat. Marrazkia, "Deba eta nire gogoetak" liburutik hartuta dago.

Dena den, Tenek hemen edo han esandako gehientsuena, bere talentu eta indar intelektualari esker bultzatu zituen arlo eta gai ia guztiak, gaur egun ideia lauso baino ez direla ikusteak pena ematen digu... Gure kulturari berak egin zizkion ekarpen gehientsuenak bezain lauso. Izan ere, Gerrate aurretiko bere lan gehientsuena denboraren akzioan disolbaturik geratu zaigu. Baina, sortez, ez da gauza bera gertatu, bere pertsona fisikoaren gogorapenarekin eta ezta bere hainbat idatzik eskaintzen digun talentua eta mailarekin.

Ez gara gutxi, oraindik, Debakoak eta baita Debatik kanpokoak ere, Tene bizirik zegoenean ezagutu genuenok eta oraindik bizirik izanda, pertsona gisa nolakoa zen kontatu ahal dugun pertsonak. Baina dudarik gabe gehiago dira, idatzi zituen antzezlanen bitartez ezagutu zuten pertsonak; bere poema sentiberak, ipuinak, euskal ohiturei buruzko historia alaiak, bere idatziak, hainbat lan ezberdin... Guzti honekin, batzuk eta besteok, emakume haren giza eta idazle mailan sakontzeko aukera izan dugu, euskara eta aldi berean Deba eta debatarak zenbat maite izan zituen jakin...

TENE GOGOAN


Tene, bere Debako etxean hil zen 1981. urteko Irailan... 93 urte zituen eta ordurako jakina zen bere osasu-

na oso txarra zela. Izan ere, gaixotasun kronikoek eta bere adinaren berezko diren gaitzak txarrera egin zuten eta denboratik zeuzkan ikusmen eta mugikortasun arazoak larritu zitzaizkion eta azken aldera ez zen bere burua maneiatzeko gai. Horrela, bere adinagatik, bere gorputzak jasan zuen etengabeko hondatzeak argi erakusten zuten bere biziaren askena hurbil zegoela.

Jakina zen arren, emakume bikain honen, idazle euskaldun aipagarria, eta debatar ezagun eta errespetagarria zen emakume honen heriotzak inpaktu sakona eragin zuen gure herrian. Bere hileta elizkizuna, gorpuaren kanpo santura arteko eramatea eta Mujika-Egaña Sendiaren panteoian egindako ehorzketa oso jendetsuak izan ziren eta debatar askoren gogoetan dirau...

Dagoeneko 28 urte luze igaroak dira, hileta hura jazo zen egunetik. Normalean, 28, urte asko dira horrelako gertakizunak gogoetan gordetzeko, baina ez dira hainbeste (nire kasuan bezala), egun hartan ikusitakoak makina bat gogorapen pertsonal erakartzen dituenean.

Emakume debatar bikain hark utzi zizkidan eta bere literatur arloan kokatuta dauden gogorapen ugari eta baita bere talentua eta izaera ere askotan etortzen bai zaizkit burura.



1960 urtetik aurrerantz, "Deva", herriko aldizkaria Tene Mujikaren ipuin eta kontakizun laburrak argitaratzen hasten da. Argazkian aldizkari haren lehen zenbakia agertzen da.

Bere pertsona eta izaerari buruz gordetzen ditudan lehen gogorapenei buruz hitz-egiteko urte asko joan behar dut atzerantz. Joan den mendeko 36-50 urteez hari naitzaizue, gure herriak (eta baita inguruko eta herrialdeko guztiak ere) bertako biztanleen bizitza asko markatu zuten era guztietako gabezia ugari pasatu zituen garai haietat, "gerrikoa estutu" beharrean aurkitu ginen garai gogor haietat. Izan ere, Gerrate Zibilaren garaian eta baita ondorengo urteetan zehar ere, ideologikoki etsaiak ziren eta elkar bizitzeko gai ez ziren bi taldeek, bestearen hondamena lortzen saiatu ziren eta baita horretarako erabili ere Nazioaren errekurtsio guztiak.

Gerratea 1939 . urtean amaitu zen, baina honek utzi zuen hondamen ekonomikoa, eragin zituen trauma eta tragedia pertsonalak, eta ondoren pairatu behar izan zen gerraondorengo krudelak faktura asko pasatu zituen urte gogor haietan zehar. Gerratea izan zen zoramen kolektibo hartan hildako senide ugari agurtu behar izanaz gain, pairatu behar izaneko errepresio politiko itzelaz gain, Debako familia gehienek, gabezi material larriak pairatu behar izan zituzten garai haietan. Eguneroko bizitza egiteko premiazkoak diren hainbat gauza falta izan ziren urte gogorak izan ziren haiek.

Beno, (eta beste gai batzuek eta herriak pairatzen zituen gabezia eta behar haietat aprobetxatuz dirutza larriak egin zituzten lotsagabe haiek alde batetara utziz),

garai haietan bizi izan genuena laburbilduz, "gosearen urteak" izan zirela lasai esan dezakegu.

Izan ere, urte haiek (eta garai haietan gertatu zen Gerrate Mundialak ere zerikusit handia izan zuen) oso gogorak izan ziren eta denboratxoa igaro zen zerbait hobetu ziren arte. Herriaren ikuspuntutik, Gerrate Zibilaren aurretik ohizkoak ziren uda garaiko bisitari ugariak denbora batez etortzeari utzi zioten eta berriro etorri eta herrian hain beharrezkoak ziren diruak uzten hasi ziren arte denbora pasa zen. Bitartean, eta, ia industriarik gabe, kalitatezko lanposturik gabe, lana egiteko aukera bakarrak (Guda aurretik ere ez zegoen aukera handirik) oso eskasak ziren herritarrentzat eta ez zuten diru askorik uzten gainera. Ez dugu ezer berririk kontatzen guzti hau esaten dugunean. Horrela, aipatutako garai negargarri haietan zehar, Debako familia gehientsuenak, eguneroko beharretan gabezia ugari pairatuz bizi behar izan zuten.

Eta beste hainbeste esan ahal dezakegu, instituzio makalez, enpresa eta herriko entitate ezberdinei buruz... Izan ere, Gerrate aurretik ere ez zuten hauek gaur eguneko mailarik lortu, baina, ondoren pairatu behar izan zituzten eskasia eta egoera kaxkarrak Gerrate aurreko maila makala oraindik ere makalagoa bilakatu zuten... Bai, umetan, nire sasoikoei bizitzea tokatu zitzaigun garaia herriaren eta Nazio osoaren hondamendia eta pobreziaaren erreflexu argia zen, Gerrateak guztioi erakarri zigun egoera jasangaitzaren erreflexua alegia.

Euskara eta kultura mailan, Gerratearen ondoren zuten egoera ez zen, ez, hobea. Elebakartasunari eta isiltze politikoari buruz emandako aginduek ondo baino hobeto bete zuten bere lana. Esan dugu lehen, Tenerentzako, zen bezala abertzalea eta idazle euskalduna izanik, eta zuen bezala izaera ireki eta sentsibilitate kulturala izanda, arimikoki jasanezina izan zen guzti hura. Horrela, erbestera joan behar izan zenetik, eta baita geroago ere, ez zen berriro inoiz lehengo pertsona bera izan, eta idazluma ere apenas hartu zuen berriz...

Hala ere, eta errepresioa gogorragoa izan zen garaie-tan ere, idazle euskaldun bikain bezala zuen izen ona beti egon zen bere pertsonari elkartuak. Beste garai batzuetan bere idatziak irakurtzeko aukera izan zuten bere belaunaldi bereko hainbat debatarrek, ondo baino hobeto gogorazten zuten idazteko zuen talentu bikain hura. Eta, gazteago garenon artean, talentu hori geroxeago agertu zen, idatzita utzi zituen lanak irakurtzeko aukera izan genuenean...

Dena den, nire aldetik, esan beharra dut, naizen irakurle asegabearen hastapenetan bere ipuin, olerki edo idatzi laburrak nire eskuetara heldu aurretik nik banekien Teneren berri... Joan den mendeko 50. hamarkada izango zen... eta nik, (garai haietan eskolara joaten zen eta amari mandatu txikiak egiten zizkion ume bat baino ez nintzen), Tene handia ezagutzen nuen dagoeneko. Garai haietan Tenek 60 urte baino gehiago izango zituen eta nik egunero ikusten nuen bere dendatxoko salmahaian bezeroei kasu eginez... bera zen, Mugikatarrek Lersundi ka-lean zuten dendatxora joaten nintzenez kasu egiten zidana.

Arduratsu eta atsegina zen beti salmahaiaren atzean, eta baita berarekin bertan lan egiten zuen bere ahizpa Enkarna ere. Tene emakume oso garaia zen, gorputz handiduna... Norbaitek bere itxura fisikoaren berezko ezaugarri bat azaltzeko eskatuko balit, honako hau erantzungo nioke...

Batez ere bere begiak gogoratzen ditut...
Hauek, oso biziak ziren, handiak, eta bere begi-tarteak angelutsua eta oso markatua...
Nire ustez oso argiak ziren berezitasun hauek...
Eta baita nahiko arruntak ere, bere ahizpa Enkarnak eta Mugika-Egaña familiako beste guztiek ere begi-tarte bera bai zuten...

Bere aurpegia gogoratzen dudanean, Debatarren artean nahiko ohizkoak ziren arrastoak zituela uste dut, bertakoen ezaugarri tipikoak bai ziren... Izan ere, nire ustez, euskaldun peto askok dituzten eta Aurelio Arteta handiak bere koadro eta margotutako argazkietan argi erakutsi zuen gisa, gureak diren arrastoak zituen Tenek ez bairik gabe.

Eta beste xehetasun batzuk gogoratzen baditugu, berehala etortzen zait burura bere janzteko era; Tenek

beti arropa zabalak erabiltzen zituen, eta beti ilunak, gure herrian alargun eta ia emakume nagusi guztiek janzten zituzten erako arropak. Esan beharrean aurkitzen gara ez Tene eta ezta bere ahizpa Enkarna ere ez zirela inoiz ezkondu... Bestalde eta gogorapenekin jarraituz, eta nahiz eta bere itxura fisikoarekin ezer gutxi ikusi, bai ahizpa biak eta baita familia osoa ere, garai haietako debatar gehient-suenak bezala, oso erlijiodunak zirela esan beharra dagoela uste dugu.

Erlijiotasun sakon hau (esana geratu den gisa), Teneren oso berezko ezaugarri bat izan genuen. Emakume bikain haren biografia egiterako orduan beti kontutan eduki behar den ezaugarria. Jakin bagenekien bai, baina gaur egun bere idatziak irakurtzen ditugunean, izan zituen ardura gehientsuenak, bere talentua, idatzi zuen literatura gehiena, bere izaera erlijioso sakon horrek eta Elizak berak eragindakoa izan zirela oraindik argiago ikusten dugu. Horrela, ez zaigu tokiz kanpo iruditzen, **“Euskaldun Fededun”** eta **“Jaungoikoa eta lege Zaharra”** bezalako Euskal esaera zaharrak Teneri ondo baino hobeto zetozkiola esatea...

Honen ildoan, bere erlijiotasuna ez zela eboluzioak eta nagusitasunak ekarritako zerbait ere esaterik badaukagu. Gaztetan era ezberdin batean pentsatu zuenaren argudiorik ez da inon agertzen, alderantziz, bai Tenek eta baita Enkarnak ere, gaztetatik printzipio erlijioso-moral oso zorrotzak zituztela jakina da... nahiz eta bai bat eta bai bestea gaztetan oso erakargarriak izan ziren arren. Horrela esan ziguten behintzat, garai urrun haietan eza-gutu eta beraiekin harremanak (orduko erara) izan zituzten zenbait debatar adinduk... 1910. urtea inguruan izango zen guzti hura... hau da, pasa den mendeko lehen hamarkadan, orduan izango bai zen ahizpa biak “adinean” izan genituen garaiak.

Baina beno, nire gogorapenetara itzuliz (50. hamarkadetara) argi esan dezaket, garai hauetan eta nahiz eta dagoeneko literatura alde batera utzita zuen oraindik bizi-rik zirauela Tenerengan bere gaztetasunean ondo baino hobeto irabazitako fama eta ospea. Eta ez ospea bakarrik, euskara eta euskal kulturarentzako garai ilunak ziren haie-tan, bere izena, bere pertsona, ikonoak ziren, euskal mun-duaren defentsa sendoaren ezaugarri zen ikonoa.

Orduan baimendua zegoen gutxiaren barnean, hau da, bere dendaren barnean eta baita bere lagunekin ere, Tene beti euskaraz hitz egiten saiatzen zen. Eta beti, argumentu garbiak erabiliz, sentiberak, kanpokoarekiko edo etsaiarekiko gorrotorik erakutsi gabe...

Nik ikusiagatik, berezko zuen izaera ona erabiliz egiten zuen hori dena. Horrela, erabili ezagatik euskaldunen ondasun bitxi eta maitea dugun euskara galtzeko zegoen arriskuagatik euskaraz hitz egiteko eskatzen zuen eta aldi berean berak ere erabili egiten zuen.

Hobeto edo txartoago etxean ikasi genuen umeekin erabiltzen zuten baina, eguneroko bizitzan euskara erabiltzen jarraitzeko bultzatzen ziren aldi berean, baita pertsona nagusiekin ere. Horregatik, gazte zein nagusik, Deban, Tenek gure arbasoen hizkuntza zenbait maite zuten ondo baino hobeto genekien denok. Bera entzuterakoan argi geratzen zen maitea, baina bere iraganeko gauzak eza-gutu ala eta lortu zuten maisutasuna jakiten hasi ginen ar-bera oraindik argiago geratu zitzaigun maitasuna.

Esan bezala, Gerrate garaia eta baita 40 eta 50. hamarkadak, oso gogorrak izan ziren euskara eta honen kulturaren hedapen eta erabilpenarentzat. Hala ere, herriko belaunaldi batek hurrengoari Tenek mundu horretan egindako lanaren berri eman zion. Bere idatzizko lana, bere figura literarioa mitikoa zen debatarrentzat. Eta are gehiago bilakatu zen, geroxeago, gazte zein nagusi, herri mailan argitaratu zituen idatzi xume eta laburrak irakur-tzen hasi ginenean.


BERE GARAIA

Tene Mujika 1888. urtean jaio zen Deban. Hau da aurrerakuntza eta obra zibilen garaia izanik, gure herrian tunelak zulatu, zubiak eraiki eta bideak egin ziren urteak, tren geltokia egin eta lan garrantzitsuak egin ondoren, trena Debara iritsi zeneko urteak ditugu haiek. Urte batzuk beranduago eta 1893. urtean trena gure herrira heldu eta gero, zenbait obra gehiago burutu ondoren, gaur egun oraindik zerbitzuan dagoen Bilbao-Donosti trenbidea bukatu zen.

Garai haietako gauzekin jarraituz, esan beharra dago, Tene jaio baino zenbait urte lehenago, bere desioz gure herriko kanpo santuan bere familiak zuen panteoian ehortzia izan zen Francisco Lersundi jeneral handia hil zela. Une triste hau eta gero, urte batzuk geroago, gure artean oso ezagunak izatera helduko ziren beste zenbait pertsonaia jaio zen. Horrela, denbora haietan, militar liberala eta gure idazlea bezain pertsonaia bikain izatera iritsiko ziren eta gure herriko historian arrastoa utziko zuten beste gizon ugari agertu zen.

Jose Manuel (1875-1954) eta Francisco (1894-1971) Ostolaza Zabala enpresa gizon eta kultura zaleak ziren anaiak. Gutxi gora behera, hauekin batera jaio eta bizi izan zen, mediku bikain eta Madrileko kirurgia akademiako presidente izan zen Jose Maria Rementeria (1894-1970) ere. Eta gure herriko kaleen izenetan eta beste udaleko zenbait ataletan gogoratuak diren pertsonaia hauekin batera, gaur egun omendua den Florencio Markiegi (1898-1937) debatar ospetsua aipatu behar dugu. Azken hau, industri gizon, politikoa abertzalea eta alkate eraila izan genuen, eta bere argazki margotua, meritu osoz, Udaletxeko pleno aretoan ageri da...

Kultur Elkarteko "Deba" aldizkariko irakurleek ondo jakingo duten bezala, pertsonaia guzti hauek izan dute



Azken urteotan zehar, Deban, Tene Mujika lehiaketa literarioa iragarri da. Argazkian 1984 urteko deialdia agertzen da.

bere tokia aurreko zenbait zenbakitan. Benetan bitxia iruditzen zait, aipatutako pertsonaia bikain guztiak eta baita beste zenbait ere, Teneren garaikoak izatea... Interesgarria iruditzen zait. Guzti horregatik eta baita beraien bizitzan zehar euren artean izan zuten erlazioa (erlaziorik izan bazuten behintzat) alde batera utziz, nahiz eta guztiak arlo erabat ezberdinetan lan egin denak lortu zutelako ohorea eta ospea. Baina gure idazlearekin lotzen dituztena herritarrak izatea eta herrian lortu zuten ospea da, eta baita, Debari denak izan zioten maitea.

Gaztetan bizi izan zituzten ilusioz beteriko urte alaiei, aldaketa nahiez eta erradikaltasunez eta zorrozkeriaz beteriko beste batzuk jarraitu zizkieten. Horrela, eta beste era batera ezin litekeenez, guzti hura, Gerrate Zibila eta ondorengo errepresio gogorrean bukatu zen... Eta nahiz eta guztiak izaera oso ezberdineko pertsonak izanez, eta garai hauek bakoitzari era ezberdin batean eragin zion, denentzako izan ziren ezberrik gabe garai gogor eta ilunak.

Dena den, eta bakoitza mugitu zen egoera ezberdinak kontutan izanda, denak izan zuten Debarekiko maitasuna, eta Tenek bezala, denek utzi zuten beraien arrastoa gure herriko historia berrienean. Eta kasu bakoitzean, arrasto bikain zein berezia. Berezia bai, Debatarrak hauek izan zituzten ardura eta sentsibilitate ezberdinei buruz izan zuten identifikazio bera kontutan hartzen badugu.

Nire ustez, egin beharrezkoak diren zehaztasunak kontutan izanda, orduan agertu eta gaur egunean oraindik bizirik dirauten barrutik irtetzen duten ardura eta sentsibilitateak ziren haiek.

Sentsibilitate ezberdinak, aurkakoak batzutan, baina gurea bezalako komunitate batean agertu eta elkar bizi behar dutenak, nahiz eta askotan joera oso ezberdineko ideia eta ardurak izan haiek. Ideia liberalak, erlijiosoak, monarkikoak edo errepublikarrak beraien artean dituzten ezberdintasunak argiak diren bezala... Eta beste kontrako ideien aldeko sentsibilitateak baina beti beharrezkoa den tolerantzia demokratikoaren barnean egonez, ez lukete inoiz herritarren elkar bizipena apurtu behar, eta bizikidetasun honekin, herriaren edo lurraldearen berezko bizipena hobetu... edo ikuspuntu zabalago batetatik begiratuta estatuarekikoa...

Dena den, esan dugun bezala, Tene eta bere garaiki-deak sentsibilitate eta ardura oso ezberdinak erakutsi zituzten. Baten baino gehiagotan beraien ideiak, batzuk besteen aurka agertu ziren, ez ideia edo eta pertsona beraiengatik, ez, elkar bizipena ezindu zuten urte erradikal eta zorrotzak bizitzea tokatu zitzaielako baizik... Hala eta guztiz ere, guzti hau ez da eragozpena izan, beraien azken ordua iritsi zenean (betiko atsedena markatzen duen ordua), beraien zuloetan eta ia elkaturik, denak bakan egotea.


Ez denak batera egietan, baina bai gure herriko kanpo santu txikian bata bestearengatik oso hurbil.

LAN LITERARIOA

Gaztetatik zituen ardura kulturalarengatik eta baita arlo horretan egindako lan onagatik ezaguna zen Tene, 1920. urtetik aurrera hasi zen benetako ospea irabazten... Debako Udala osatzen zuten familia gehientsuenak bezala, Tene ere familia euskaldun batean jaio zen, eta, horregatik, beti euskararekin bizi izan zen. Eta emakume intelektuala izanik, eta bere hizkuntza eta honen kulturak erakarrira laster hasi zuen euskararen erabilpena eta sakontzea eskatzen. Eta gogoeta horren bitartez, ahan handiz, bere inguruko arazo gizarte-kulturalen sakondu eta honen heziketa intelektuala hobetuz.

Eta ez zuen, soilik euskara idatzia lantzen, ez, garai horretan, zegoeneko, euskaraz hitz egiten zuen hizlari gisa eta bai hizkuntza honen teoriko gisa, izen ona irabazita zuen jada. Eta beste hitzaldi batzuen artean, Euskal Jaia zela eta 1923. urtean Oiartzunen esan zituen hitzak nabaritu dira.

Jendetza izugarria bildu omen zen. Baina bertan zegoen pertsonetako batek (Ipar Aldeko euskaltzale gogoratua dugun Oxobik), hitzaldiaren ondoren, garai haietako aldizkariren batean, hitzaldia eman zuen emakume harekiko bere iritsia eman zuen. Gaur egun iritsi hori irakurtzen badugu, debako hizlariak euskaltzale bikain honetan utzi



zuen gogorapen ona argi geratzen da. Izan ere, hitzaldi horretan, Tene, k tarima gainetik jendeari zuzentzeko abilezia eta gaitasun bikainak erakutsi zituen antza. Euskaraz oso ondo hitz egiten zuen, zirudienez barruenean sentitzen zuen hizkuntza eta bere iraupenarekiko egin zuen eskaera beroa entzuleei barru barruraino sartu zitzaien.

Eta ez zen dudarik gabe une bakarra izan, baina hura izan zen bere hitzak idatzirik geratu zirenetako aldi bakarretako bat. Egun horretan, antza, sentimenduz, zintzotasunez, hitz baliogabeak erabili gabe, gure gurasoen hizkuntza zaharra zaintzearen alde hitz egin zuen... Hona Oxobik idatzitakoa:

“Tene Mugika debarra, aurpegi moso zuria zuen eta tarimara igota, bere entzule zirenei lotsa pixka batez begiratzen zien emakume gazte bat genuen.

Hitz hutsik gabe, berak esandakoa, doktrina exotikoek oraindik zikindu ez zuten herri euskaldun haren bihotzera heldu zen zuzen zuzenean...

Amaren altzo epelean ikasi dugu euskara hitz egiten -galdetzen zuen Tenek- baina nahikoa maite al dugu?”

Izan ere, gaztetandik izan zuen emakume honek euskara, bere ardura eta nahien artean. Euskara, literatura mailan, gogoz eta talentuaz erabili zuelako eta hitzaldietan, Oxobik argi esanda utzi zuen bezala, erabiltzen zuen berba leun eta maitagarriagatik nabarmendu zen gure Tene. Baina zer eta nola esanagatik baino gehiago, Tene bere idatziengatik (idatzia beti geratzen da ahozkoa baino gehiago) iritsi zen ezagun izatera. Horrela eta zerrenda zehatz bat egin gabe, honako hau esan daiteke:

Aipatutako 1923 urte horretan (Tenek 35 urte zituen orduan), idazle debarra garaile suertatu zen Zornotzan, "Euskalzale Bazkunak" taldeak iragarri zuen lehiaketa batean. Lan garailea "**Miren Itziarren idazkiak eta olerkiak**" emakumeari eskainia zegoen. Izan ere, bere idatzi labur eta olerkien bidez, gai literarioak jorrazteko orduan argi baino argiago erakusten zuen, bere gustuak nondik nora zihoazen.

Gerorago, ingelesera itzulia izan eta 1928 urtean, Ingalaterran, ipuin laburren antologia batean argitaratua izan zen "**Udazken ala**" idatzi zuen.

1934 urtea izan zen aldiz, euskal idazle eta antzerki autore gisa finkapena eta erabateko ohorea lortu zituen garaia. Euskaraz egindako idatzien "II. Antzerki Egunean" lehiaketan parte hartu eta irabazi egin zuen "**Gogo-Oñazeak**" lanarekin. Usadioetan oinarritutako antzerki honetan, ondo baino hobeto azaldu eta aztertzen ditu, bere garaietako eta baita berarengan berezko ziren printzipio erlijioso-moralak eta baita gizartearen ohiturak ere. Bestalde, bere lanetan idazleak emakumeei ematen dien paper garrantzitsua ez da harrizkoa. Izan ere, Tenek buruan zuen euskal munduan, emakumeak oinarritzeko papera betetzen bai dute.

Tenerentzako, emakumeek, beraien berezko ontasun eta amatasunari, erlijiotasuna, familiaren elkartzaile lanak eta usadio eta ohituren bultzatzaile lanak gehitzen dizkio.

Aipatutako Gogo Oñazeak idatzia lehiaketa horretan garaile suertatzeaz gain, oso harrera ona izan zuen euskaraz egindako antzerkiaren munduan. Eskenatokietan hainbat aldiz antzeztua izandako lana, 1988 urtean Debako Zubeltzu zineman ikusi ahal izan genuen. Urte horretan ospatu zen autoresaren jaiotzaren ehugarren urteurrena eta antzeppen horrekin, Debako "Goaz" antzerki taldeak gogoratu nahi izan zuen eta omenalditxo bat eskaini zion... Eta horretarako zer hobeto, Debako zale eta ikusleei autoresaren euskarazko antzerki ezagunena antzezteko baino...

Gerrate Zibilaren aurreko urteetara itzuliz, Tenek beste zenbait garaikur ere irabazi eta jaso zituen. Bere ipuinek, ume eta nagusientzako idatziek, bere olerki sentituek atentzia jo zuten eta horrela hauetariko askok, argitaratzearen saria merezi izan zuten.

Gero, erbesteko egoera gogorrek, gerraondorenak eta bizitzea tokatu zitzaion errepresioak, bere inspirazioa ito zuten eta bere luma geldiarazi. Horrela, oso berandu izan zen, 1960 urtea ondoren (Tenek 70 urte baino gehiago zituen jada) berriro ere lantxoren bat argitaratzen hasi zenean. Ondo gogoratzen ditut nik, oraindik gazte baina irakurle amorratua zegoeneko, Udaletxeak argitaratzen zituen San Rokeetako programen barnean agertu ziren autoresaren zenbait idatzi. Bai jaietako programa barruan eta bai Debako Gazteen Elkartek garai haietan bere pentsura argitaratzen zuen herri mailako aldizkariko zenbait zenbakietan ere.

Aldizkari hau hedapen kulturalera zuzenduta zegoen eta urtean zehar noizbehinka ateratzen zen argitalpena genuen. Baina egia esan, zenbaki horietan zehar izan zen gure idazle bikaina ezagutzen hasi nintzen era eta baita garaia ere. Herriko, lurraldeko eta herrialdeko usadio eta ohituretan oinarritutako idatzi laburrak ziren, eta zein gustura irakurri nituen ondo gogoratzen dut.



Baina urte batzuk geroago berriro irakurri nituenean, balore handiagoa ematen hasi nintzairen. Izan ere, eta nahiz eta oso laburrak izan, idatzietan erabili zuen euskara konkretu eta erraza eta bere idazteko era, maisuarenak iruditzen zaizkit... Bai, gaur eguneko ikuspuntutik begirata, nire iritsiz, aipatutako kontakizun laburrak lumaren maisua zen pertsona baten lana iruditzen zaizkit. Nire ustez, ipuin eta idatzi gutxi hauekin, gazetetan irabazi zituen ospe eta fama oso mereziak zituela ondo baino hobeto erakutsi zigun Tenek.

“Telex Markexa eta Vixente Paxio”, “Don Lukas eta Txirilo”, “Alguazil Txikia”, “Zezenak ganbaran” eta beste zenbait bezalako kontakizunak maisutasunez idatziak daudela iruditzen zait. Gainera, guztiak, irakurtzeko oso errazak dira, Tenek, ondo idazteaz gain, berezko zuen euskara herriko, irakurtzeko erraza eta aberatsean idatzi bai zituen... Gehienak, umorez idatzitako zenbait debatar pertsona bitxiaren biografia eta anekdotak dira. Bere garaian ezagutu zituen herriko zenbait errepika ezinezko pertsonaiek esandakoak eta egindakoak jasotzen zituzten kontakizunak. Dударik gabe, beti iruditzen zitzaizkion maitagarri herrikoa, berezkoa, hau da, gure herriko usadio eta ohiturak eta baita herrikoen izaera ere... izan ere bera ere debarra zen eta idazlea izanik...

Garai haietan izango zen, baserriko biziari buruzko bere beste olerki sentitu batekin, “**Arnobarreneko Iñaxio**”-rekin hain zuzen ere, Ondarroan egindako beste lehiaketa literario bat irabazi zuenean.

Bestalde, eta bere biziaren azken urteetan, eta bere pertsonak besteongan esnatzen zuen aureola mitikoaren barnean oraindik, autoresa euskaldunak, beste garai garratz bat pasatu behar izan zuen... 1970 urtetik aurrera izan zen, aldaketa garaiek, euskararen modernizazioa ekarriko zuten honen bateratze erregela eta neurriak azaldu zirenean...

Euskaltzain ezagunak, hizkuntzaren maisuak eta baita herritar ugari ere, gure hizkuntza zaharraren estrukturan aldaketa sakonak sartzearen beharra aldarrikatzen hasiak ziren zegoeneko. Hezkuntza sisteman errazago barnertua izan zedin eta baita hizkuntzaren modernizatorako ere. Baina bere belaunaldiko beste zenbait idazlek egin zuten bezala, Tenek bere erreserbak azaldu zituen. Ez gure hizkuntza zaharra bateratzeko eta modernizatzeko ideari buruz, (Tenek ere beharrezko ikusten zuen hori), ez, aldaketa horiek aplikatzeko erabili zen metodologia eta iritsiei buruz baizik. Horrela, euskararen historian gakoa zen eta hainbat debate eta desadostasun ugari ondoren, gure idazleak, Euskaltzaindiaren aurkako bere ikuspuntua mantendu zuen beti...

Jakina da, garai haietako iritsi ezberdinek, eztabaida garratzak eta emaitza bezala gaur egun erabat zabaldua dagoen euskara batua eman zuten ikasketa linguistiko filologikoei, min handia egin zioten Teneren sentsibilitate



Teneren ehungarren urteurrena ospatzean (1988) bere gorpua dagoen hilobian loreak jarri ziren bere memoriaren oroimen gisa. Argazkia Kultur Elkarteko “Deba” aldizkaritik hartuta dago.

finari... Horrela, Anes Arrinda, Yulene Azpeitia eta gure inguruan oso ezagunak ziren beste zenbait idazlerekin batera, “Kardaberaz Taldea” osatu zuten. Talde hau “H” hizkiaren erabilpenaren aurkako zen eta baita euskararen idazkera eta lexiko tradizionalaren mantentzearen aldekoa ere. Arlo filologikoan oso kontserbadorea zen “Kardaberaz”. Taldeak gogor kritikatu zituen euskararen batasuna ekarriko zuten aldaketa progresistak aldarrikatzen zituen jendea eta ideiak.

Guzti hau ez zen oztopo izan, hil baino zertxobait lehenago, 1975 urtean hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko areto nagusian, eta sesio bikain batean, Euskaltzaindiak, elkarte honetako ohorezko kide izendatu zezan.

Esan beharra dago baita, bere heriotza gertatu eta denbora gutxira, Teneren ohore eta memorian, Debako Udalak, eta Kultur Elkarteak, autoresaren izena daraman eta urtero antolatzen den euskarazko lehiaketa literario bat sortu zuten. Duela gutxi arte, lehiaketa hau, Tene maisu handia izan genuen ipuin eta kontakizun laburrentzako izaten zen.

Azkenik eta amaitzeko, irakurri dezagun euskaraz idatzitako bere lan labur baina bikain hau:

DEBAKO GAUZAK

ELES MARKEXA TA BIXENTE PAXIO

“Nortzun ziran abek biak? Debar jator, gizajo, batzuk. Iñoiz iñori kalte egin gabeak, gaiztakeria zer zan etzekitenak, baña zakelean erreal bat gordeta euki ezin zutenak, tabernara jua bear, Txurruta maite. Bezte gaitzik ez. Ta eran ezkeru...”

“Teles Markexa luzexka, argal, zuzen-zuzena; beti txukun jantxita garbi- garbi; Bixente Paxio moztzako, arpegikera, illunduna, itz gutxikoa, baña ona.

Ayen garayan Deba´ko portua zerbait zan, bela`ko barkuan sartu-etenakin, portu bezala, gaur baño garrantzi edo inportatzi geyago zuan. Emen ikuzten genduzen atoiak tiraka zutela Maxpe`raño zartzen enMARGARITA, COSTANZA, AINGERU GUARDAKOA, MARIA GABRIELA”, eta abar. Batere aizerik ez ba`zegona “zirga” kin lagunduta; gizon erreskada aundia soka luzetik tiraka,zubi azpitik paza”ta Maxpe`raño barkoa, an ikatza uztutzeko. Batzuk Cadiz`tik gatza ere ekarri zi zuten.

Barko oyetako bat edo bestean oi ziran mariñel gure mutil biak, Zumaiya`n barkoa kargatu ta Gijón`a. An autza uztu, berriz ikatza artu eta Deba edo Zumaya´ra Abek ziran ayen biajeaak, joan da etorria En, aizea nola, alde edo kontra, aimbeste denbora; egun gutxi`

Bein, pleit on-xamarra, eta zuertez aizea ere beti egoki, egin dute barkuarekin egun gutxian juan-etorria, egun gutxi jateko eta jakiña! Partill ona. Amarna duro! Alajaña! Amarna duro zillarezko gerriko muturreko zorrón batuta, Teles Markexa ta Bixente Paxio baño aberatzogorik iñor ere ez.

Baña nola adierasi erriari baurak aberatz zirala? Nola, baña nola?

Topatu dute kalean Angel Faustino muti-koskor txikia, bere aitak erakutzita txistua oso poliki jotzen zuana ta...

Txotxo, Faustino! Ekarri itzak txistua ta danboliña, ta kalegiran jotziaren errial bi emango dizkiagu.

Mutil koskorra posik. Erosi zitusten zigarerokuan “itxapleruak”, eta an dijoaz aztegun baten arrazaldeko lauretan, kalerik-kale, soñua aurretik eta beurak atzetik, zu-ziriyak erreaz ”pli-pla” “pin pun”.

Atzo guztiak leyoetara. -Zer gertatzen da? Zer? -Markexa eta Paxio aberastu! Amarna duro partilla egin!

Ez parrerik egin irakurle! Ayek egun artan bene-benetan ziran aberatzak. “

TENE

CUENTAS DE INGRESOS Y GASTOS CORRESPONDIENTES A LAS ACTIVIDADES DESARROLLADAS EN EL AÑO 2008

PRESUPUESTO PARA 2009

INGRESOS	REALIZADO 2008 Euros	PRESUPUESTO 2009 Euros
Revista Deba (Código Contable 75901)	2.919,00	3.000,00
Cuota socios (75902)	930,03	950,00
Cuotas socios entidades (75903)	86,61	300,00
Subvención Revista Deba (740001)	270,00	270,00
Sala de conferencias (75904)	240,00	200,00
Intereses, renta fija y créditos (761 a 766)	57.764,63	46.000,00
TOTAL INGRESOS	62.209,67	50.720,00

GASTOS	REALIZADO 2008 Euros	PRESUPUESTO 2009 Euros
Revista Deba (código contable 6292)	13.016,19	13.000,00
Teléfono y otros servicios (6295)	862,53	800,00
Contribución urbana, impuestos (631)	773,43	780,00
Reparaciones y conservación (622)	3.418,55	5.000,00
Primas de seguros (625)	1.941,08	2.035,00
Servicios profesionales independientes (623)	1.563,98	1.600,00
Energía y suministros (628)	3.859,55	3.900,00
Material de oficina y varios (6291 / 6296)	868,29	900,00
Actividades propias y en colaboración (649)	7.406,90	10.000,00
Beka P. Aldabaldetrecu (6490016)	2.400,00	4.000,00
Servicios bancarios (626)	425,69	400,00
TOTAL GASTOS	36.536,19	42.415,00

Extras Biblioteca, sueldos, Seg. Social	11.634,91
Realización Página Web	1.200,00

RESULTADO EJERCICIO	12.838,57	8.305,00
----------------------------------	------------------	-----------------

MEMORIA DE ACTIVIDADES REALIZADAS EN 2008

GELA ETA LOKALEN ERABILERA



USO de las DISTINTAS SALAS y LOCALES

- Urtarriletik maiatzera eta urritik abendura, teiltupeko gelaren zesioa Haitz Haundi taldeak antolatutako marrazketa ikastarorentzat.
 - Erakusketa Aretoa: 0 erakusketak.
 - Areto Nagusia: 116 alditan erabili da.
 - Sotoko gelak eta besteak:
Erabilera ezberdinak, Jantzigintza,
San Roke Xakea, Oargi, Amaiak Bat, Euskal Jolas,
Debanatura, Esait, e.a.
-
- Cesión del ático para los Cursos de Pintura (Oleo y Dibujo) organizados por Haitz Haundi, desde enero a mayo y desde octubre a diciembre.
 - Sala de Exposiciones: 0 exposiciones.
 - Salón de Actos: Ha sido utilizado en 116 ocasiones.
 - Sótano y otras salas: Han sido utilizadas para diversos usos tales como Corte y confección, Ajedrez S. Roke, Oargi, Amaiak Bat, Euskal Jolas, Debanatura, Esait, etc.

DEBA ALDIZKARIA

EKINTZEN MEMORIA MEMORIA de ACTIVIDADES

- Hiru aleren argitarapena, 2008ko Udaberria, Uda eta Neguan, 69, 70 eta 71 zenbakiak. Guztira 1400 aldizkari.
 - 17 lagunek idatzitako 47 artikulua. Hauetatik 5 euskaraz (% 10,5).
 - Aldizkariak Instituzioetara eta kanpoan dauden debarrei bidaltzen zaie. Zenbaki bakoitzeko 32 bidali dira.
 - Hiru aleen argitarapenean herriko Kutxak lagundu du.
 - Erredakzio taldean 7 bazkidek hartu dute parte.
 - Maketazioa Kaioak egin du eta inprimaketa Euskalinprik.
-
- Edición de tres ejemplares, Udaberria, Uda y Negua 2008, correspondiente a los números 69, 70 y 71. La tirada ha sido de 1400 revistas.
 - Han sido publicados 47 artículos, pertenecientes a 17 autores. En euskara han sido publicadas 5 colaboraciones (10,5 %).
 - Se ha enviado revistas a diversas Instituciones y debarras ausentes del municipio. En total 32 envíos por cada número editado.
 - Ha colaborado en la edición de los tres números la entidad financiera local Kutxa.
 - La composición del Comité de Redacción la han formado 7 socios.
 - La maquetación la ha realizado Kaioa y la impresión Euskalinpri.



DEBAKO KULTUR ELKARTEA

J. M. Ostolaza Kalea • Apartado 33
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 191 172

E-mail: debaldikaria@mixmail.com
www.ostolaza.org